

# TXOSTENA 2021



[www.ongdeuskadi.org](http://www.ongdeuskadi.org)

# Aurkibidea

## 3 Aurkezpena



## 7 Gure ekimenak

8 Generoa

10 Eragin politikoa

14 Mobilizazioa eta gizarte-eraldaketarako hezkuntza

19 Sektorea sendotzea eta zerbitzuak

19 Publikoari, GGKE-ei eta instituzioei arreta

22 Formakuntzak eta jardunaldiak

27 Ikerketak

28 2022-2030eko Plan Estrategikoa

29 Komunikazioa



## 31 Nortzuk gara

32 Gobernu Batzordea

32 Lan-taldeak

33 Erakundeetan partaidetza

34 Talde teknikoa

35 GGKEak



## 36 Kontu argiak



# Aurkezpena



Euskadiko garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen (GGKE) kolektibo bat gara, eta justizia globalaren alde egiten dugu lan honako hauen bitartez, besteak beste: garapenerako lankidetzaz; gizartea eraldatzeko hezkuntza; ekintza humanitaria; genero-ekitatea, baina lankidetzaz feminista helburu duena; bakea eta giza eskubideen sustapena; eta giza garapen jasagarria.

Sare hau 1988an jaio zen, 11 erakunde fundatzaileen eskutik. Egun, 84 GGKEz dago osatuta; hortaz, sektorearen isla argia gara, eta GGKE-en eta gizartearen proposamenak, interesak eta

baliok ordezkatzen ditugu, administrazio publikoen, beste erakundeen eta herritarren aurrean.

Gaur egungo sistema kapitalista, heteropatriarkal, arrazista eta kolonialak pobrezia, desberdintasunak, injustizia eta giza eskubideen urratze larriak eragiten ditu, gure inguruan eta munduko beste hainbat tokitan. Hori egiten du, hain zuzen ere, elementu ugari eragiten dioteko guztiz elkarrekin erlazionatuta eta globalizatuta dagoen mundu batean. Horregatik, uste dugu gaur egungo arazoak eta erronkak globalak direla eta, beraz, konponbideek ere hedadura bera lortu behar dutela.



Sare sozial hauen bidez ere izan dezakezu gure jardueren berri: **FACEBOOK**, **TWITTER**, **INSTAGRAM**, **YOUTUBE**, **IVOOX** eta **VIMEO**.



Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen lan egiten dugu justizia globalaren alde, pobrezia eta desberdintasunak eragiten dituzten kausak gainditzen laguntzeko, eta pertsona ororentzat bidezkoagoa den mundua sortzen laguntzeko; horrela, pertsonen bizitzak eta duintasuna erdigunean jarriko ditugu. Eraldaketa sozialean ere laguntzen dugu, eta herritarrengan kontzientzia kritikoa eta solidarioa sortzen dugu.

Giza garapen jasangarriaren eta ingurumenaren zaintzaren ikuspegitik jarduten dugu, baina naturaren eskubideen ikuspuntu berritzailea helburu izanda. Genero-ekitatearekiko eta ikuspegi feministarekiko konpromiso irmoa daukagu, gainera, eta horietan gehiago sakontzeko asmoa daukagu. Horrekin batera, eta helburu horietan aurrera egiteko, Genero-politika daukagu (berrikusteta-eta eguneratze-prozesuan).

Hauk dira gure erakundearen lehentasuneko helburuak:

- Kalitatezko garapenerako lankidetzeta-politika sustatzea eta bermatzea, erakunde publiko, pribatu eta bazkide diren GGKE-etan oinarritua eta egonkortua.
- Jarduerak koordinatzea, esku-hartze egokiak eta eraginkorrak lortzeko, bazkide diren erakunde lankidetzaren eta elkarrizketaren bitartez.
- GGKEak beren lanean laguntzea, beren jarduketak eta gaitasun politiko eta teknikoak indartzea, eta aliantzak erraztea, beren baliabideak kolektiboaren zerbitzuan jarri, eta alderantziz.
- Kontzientzia kritikoa erazten laguntzea, justizia globala, giza eskubideak eta berdintasuna nagusitu daitezela.

Hori guztia lortzeko, herritarren parte-hartzea errazten dugu, baita eztabaida kritikoa ere gure garapen-ereduak pobrezia-ekin eta berdintasun ezarekin duen harremanaren inguruan. Halaber, elkartu, eztabaidatu eta taldean jarduteko guneak ahalbidetzen ditugu, bazkide diren GGKE eta eraldatzeko helburuak partekatzen dituzten beste plataforma, sare eta mugimendu sozialen artean komunean dituzten jarrera eta irizpideak adosteko.

Gure ustez, nazioarteko lankidetzeta da Euskaditik pobretutako herrialdeekin eta egoera zaugarrietan dauden kolektiboekin batera egiten dugun lan horizontala, giza garapena eragozten duten oztupoak ezabatzeko. Uste dugu solidaritatean, elkarrekikotasunean eta interes ezan oinarritzen den prozesua dela, bestelako interes ekonomi-



korik gabe. Ikuspuntu sinplista edo eurozen-tristen aurrean, garapen are barneratzaileagoa sustatzen dugu. Garapen horren arabera aitortzen da, besteak beste, aniztasunak planeta eta gizarteak aberastu, eta giza eskubideak indartzen dituela.

Gainera, uste dugu lankidetzak dela funtsezko tresna pertsonen eta herrialdeen garapena zailtzen dituzten mekanismoei buruz hezteko, sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko. Horregatik, beharrezko palanka da gizarte zibil antolatua, giza eskubideekiko konprometitua eta kontzientziatua, –eta, beraz, libreagoa–, batetik, gizartearen eraldatzea aktiba dezan eta, bestetik, munduko desorekak ezabatzeko eraginkorrak diren neurriak eska ditzan.

Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak, era berean, kolektibo hau osatzen duten erakundeek ekintzak gidatzen dituzten balioak islatzen ditu. Horregatik iruditzen zaigu garrantzitsua, besteak beste, demokrazia, parte-hartzea, independentzia, askatasuna, gardentasuna, koherentzia eta genero-ekitateak sustatzea. Azkenik, pobrezia, desberdintasunak eta bazterkeria ezabatzeko borroka horretan, munduan dauden beste hainbat talde sozialek bezala, gurea egiten dugu *beste mundu bat posible da* goiburua, baita *inor atzean ez uztearen* borondatea ere.

Bazkide diren GGKE-ek osatzen dute Batzar Orokorra, eta gutxienez urtean behin biltzen da irizpide eta jardute-ildo nagusiak definitzeko. Goreneko gobernu-organoa da, eta, beste hainbat eginkizunen artean, hainbat nazioarteko guneetan ordezkatzen dituzten karguak hautatzen

dira bertan. Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak Euskadiko lurralde historiko bakoitzean ordezkaritza bat du, eta bertan, lurraldean egoitza daukaten GGKE-ek hartzen dute parte. Ordezkaritza bakoitzaren organo operatiboa Lurralde Batzarra da.

Gobernu Batzordea GGKE bazkideen talde mugatu batek osatzen du. Erakundearen organo exekutiboa da, eta jarduerak programatzen eta zuzentzen ditu, Batzar Orokorrek zehaztutakoaren arabera. Lan-taldeak GGKE-ek osatzen dituzte, eta hainbat arlotan egiten dute lan kolektiboarentzat. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ordezkaritzetan, eta talde teknikoaren laguntzarekin, aipatutako guneetan hartutako erabakiak gauzatzen dira, eta informazio- eta aholkularitza-zerbitzuak eskaintzen dizkiegu GGKE-ei, erakundeek, euskal lankidetzaren agentei eta herritarrei.

Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak eta erakunde bazkideek [jokabide-kode komun](#) baten barruan jarduten dugu. Jokabide-kode horrek gure lana gidatu behar duten printzipioak eta balioak jasotzen ditu, baita partekatutako gardentasunerako eta gobernatze onerako estandarrak ere.

1999tik, Espainiako Garapenerako erakundeek Koordinakundearen parte gara. 2009an, Eusko Jaurlaritzak Ignacio Ellacuría saria eman zigun, gure ibilbidearen aitortpen. Euskararekin dugun konpromisoaren erakusle, Araban eta Bizkaian Euskararen bidean ziurtagiria daukagu, eta Gipuzkoan, Zerbitzua euskaraz, biak Bai Euskarari elkarteak emanak.



Gure **WEBGUNEAN** eta **YOUTUBEKO KANAL** honetan, 2021eko gure lana ezagutu dezakezu.



# Gure jarduerak



## Generoa

Gure jardun guztian zeharka genero-ikuspegia bermatuta dagoela zaintzen dugu, arlo hori lan-tzen dugu erakunde publikoekin, eta laguntza eta prestakuntza ematen diegu esparru horretan GGKE-ei eta beste eragile sozial batzuei. Hona hemen guk gauzatutako zenbait jarduera:

— Erakundearen planifikazio estrategiko berrian, genero-ikuspegiaren oinarritutako lankidetzatik lankidetzara feministara pixkanaka igarotzearen alde egin dugu. Paradigma horrek arreta jartzea ahalbidetzen du, besteak beste, sektore anitzeko diskriminazioan, deskolonizazioan eta gobernuen nazioarteko jarduketan-estategietan, bai eta sektorean sortzen ari diren eztabaidetan ere.

— Gure **Genero-politikari** jarraipena egin diogu, eta bete dadin zaindu dugu. Gainera, onetsi zenetik bederatzi urte pasa direnez, ebaluatzea eta, egokia balitz, eguneratzea erabaki dugu. Horretarako genero-diagnostikoa egin dugu Oreka aholkularitza-zerbitzua-ren laguntzarekin. Helburua gure politiketan, jardunbideetan eta ideietan genero-ekitatea bermatzea izan da, erakundearen analisirako eta ikasketarako prozesu parte-hartzaile baten bidez. Horretarako dokumentu-analisia egin dugu, banakako elkarrizketak egin ditugu, erakundeei bideratutako galdetegia sortu dugu, hiru tailer tematiko egin ditugu gure sareko hainbat gunetan parte hartzen duten GGKE-ekin, eta bi foku-talde eta bi talde-elkarrizketa antolatu ditugu. Prozesu horretan guztian zehar talde eragile bat eta jarraipen-batzorde bat egon dira lanean.

— Gure erakundearen *Sexu-jazarpeneko eta sexuan eta sexu-orientazioan oinarritutako jazarpeneko egoeretan prebentzioa lantzeko eta esku hartzeko protokoloa* bete dugu, eta koordinazio-guneak sortu ditugu GGKE-etan nola ezarri den aztertzeko, bai eta ezagutarazteko ere. Tresna horren xedea da gure erakundearen zein entitate bazkideetan arlo horietan azal liratekeen jardunbideak saihestea eta eraztea. Horrekin batera, babes-esparrua eskaintzen die sektoreari lotutako pertsona guztiei.

— Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak parte hartu duen erakundearen dokumentuetan egin dituen ekarpen guztietan, genero-ikuspegia sartzen dela bermatu dugu.

— Gure erakundearen aurrekontuak genero-ikuspegiarekin egitea eta arlo horretan erakundeei bide egitea helburutzat duen barne-prozesuarekin jarraitu dugu, halaber. Horretarako hainbat tresna sortu ditugu urteetan zehar. Hain zuzen ere, gure esperientziaren eta aurrerapausoen berri emateko,





Bilbon uztailaren 1 eta 3 arteko Ekonomia Feministaren VII. Biltzarrean parte hartu dugu. Zehazki, honako hitzaldi hau aurkeztu dugu: *Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen esperientzia genero-ikuspegiari oinarritutako aurrekontuetan: eraikitze bidean dauden prozesua.*

— Gure Genero-politikak eskatzen duen bezala, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluan gure erakundea ordezkatzen duen pertsona batek genero-arduradunaren postuari eutsi dio.

— Harreman instituzionalei eta genero-ekitateari dagokienez, bilerak egin ditugu Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako genero-arduradunarekin, lan-agendak partekatze, informazioa trukatzeko eta elkarrekin lan egiteko bideak aztertze.

— Ikuspuntuaren eta edukien bidez, genero-ikuspegiaren gure lan komunikatiboan, prestakuntza eta antolatu ditugun jardunaldietan sartu dugu, besteak beste.

— Gainera, generoari buruzko prestakuntza-jarduketak egin ditugu, gure erakundeari, beste GGKE eta kolektibo batzuei, erakunde publikoari, Euskadiko lankidetzaren arloko eragileei eta gizarte osoari, oro har, bideratuta.

— Emakumeen giza eskubideen eta genero-ekitatearen defentsan aritzen diren sareekin aliantzak sendotzen jarraitu dugu. Bizkaiko martxoaren 8ko (Emakumeen Nazioarteko Eguna) Koordinakunde feministan hartu dugu parte. Honako lelo hau izan dute mobilizazioek: *Sistema arrazista arrakalatu. Tejiendo resistencias feministas.* Era berean, Bizkaiko azaroaren

25eko (Indarkeria Matxistaren aurkako Nazioarteko Eguna) Koordinakunde feministan ere parte hartu dugu, eta honako lelo honekin atera da kalera aurten: *Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak orain! Organicemos la autodefensa feminista.* Donostian ere koordinatu gara, mugimendu feministan aktiboki diharduten eta GGKE kideetako partaide diren pertsonen bidez, azaroaren 25eko manifestazioan parte hartzeko.



## Eragin politikoa

Erakunde publikoekin eta alderdi politikoekin lan egiten dugu, kalitatezko lankidetzazko politika deszentralizatua sustatzeko eta haren balioa azpimarratzeko:

— Lankidetzazko harreman egonkorra ditugu lankidetzazko politikak lantzeaz arduratzen diren eragileekin. Azpimarratzekoak dira, adibidez, honako hauekin egiten ditugun bilerak: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundietako lankidetzazko arloekin, eta Gasteizko, Bilboko, Donostiako eta beste zenbait udalerrietako udaletako lankidetzazko arloekin. Bilerak egin ditugu, halaber, gobernuko talde politikoekin eta oposizioko taldeekin Eusko Legebiltzarrean, hiru lurraldeetako batzar nagusietan eta hiru

hiriburuetako udalbatzetan. Horrekin batera solasaldiak izan ditugu Euskadiko alderdi politiko nagusien zuzendaritzekin.

— Urtean zehar lan handia egin dugu Eusko Jaurlaritzak izapidetutako lankidetzarako euskal lege berria dela eta. Honako lan hau nabarmendu dezakegu: etorkizuneko legearen aurrean daukagun jarrerari buruzko dokumentua; eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua jardunaldiaren izandako parte-hartzea esparru legal horri buruz eztabaidatzeko; baita Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren tailerretan ere gure ekarpenak transmititzeko, besteak beste. Bilerak izan ditugu hainbat legebiltzar-talderekin, halaber, hala nola PSE-EEekin, EH Bildurekin eta Elkarrekin Podemosekin.



Argazkia: Eusko Legebiltzarra



Argazkia: Arabako Batzar Nagusiak





— Urtero, agerraldiak antolatzen ditugu legebiltzarreko organoetan. Horien artean honako hauek nabarmentzen ditugu: martxoak 10ean, Eusko Jaurlaritzako Europako Gaien eta Kanpo Harremanen Batzordean, *Giza garapen jasangarriko politiken koherentzia. Enpresak nazioartekotzeko Euskadiko politikaren bereizgarri nagusiak* ikerketa aurkezteko; apirilak 16an, Arabako Batzar Nagusien Lehendakaritza, Euskara, berdintasun, Lankidetzeta eta Giza Eskubideen Batzordean, GGKE-en papera pandemiaren esparruan azaltzeko eta aipatutako ikerketa aurkezteko; maiatzak 12an, Gipuzkoako Batzar Nagusien Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirolaren Batzordean, ikerketa bera aurkezteko; maiatzak 25ean, Diputatuen Kongresuko Garapenerako Nazioarteko Lankidetzeta Batzordean, Espainiako nazioarteko lankidetzeta-sistema eta arau-esparruaren eguneraketaren testuinguruan; eta abenduak 1ean,

Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean, hezkuntzarako euskal lege berriaren oinarriak finkatzeko egin den hitzaldian.

— Orobat, ekarpenak egin ditugu zenbait alderdi politikoren eta erakunderen hainbat dokumentutan (araudi-esparruetan, deialdietan, dekretuetan...).

— Ordezkaritza aktiboa dugu elkarrizketarako eta parte hartzeko zenbait eremutan, horien agenden jarraipena egin dugu, eta horietan jarrerak, proposamenak eta ekarpenak aurkeztu ditugu. Honako hauek azpimarratzen ditugu: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua (eta bere Batzorde Iraunkorra eta Politiken Koherentziarako Batzordea), Kanpoko Ekintzarako Batzordea, edota Elkarrizketa Zibilerako Mahaia.



Argazkia: Diputatuen Kongresua



Argazkia: Eusko Legebiltzarra

Lurralde-mailan, aipatzeko modukoak dira Bilboko Lankidetzarako Udal Kontseilua (eta bere Batzorde Exekutiboa), Donostiako Udaleko Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzako Aholku Kontseilua (baita bere Batzorde Iraunkorrear ere), Gasteizko Garapenerako Lankidetzarako Elkargunea, Arabako Foru Aldundiko Eskutik Mundura, eta Gipuzkoako Kooperazio Mahaia.

— Indarrean dagoen euskal erakundeen nazioarteko lankidetzari buruzko legediaren betetzea aztertu dugu. Horretarako, erakundeen aurrekontuen jarraipena egin dugu, gobernu-taldearen hasierako proposamenetik abiatuta, baina oposizioko alderdi politikoak ere kontuan hartuta. Zazpi euskal erakunde nagusiek lankidetzara bideratutako aurrekontuen zenbatekoan jarri dugu arreta bereziki. Oso adierazgarria izan da pandemia globalaren testuinguruan, politika horien egonkortasuna arriskuan jar zezakeelako. Horrekin batera, beste pauso bat eman dugu datuen analisisian, eta euskal lankidetzaren zifren errealitatea irudikatu dugu ez bakarrik erakundeen aurrekontuetan, baita barne produktu gordinean ere. Analisi hori erakundeek, alderdi politikoei eta parte hartzen dugun lankidetzeta-batzordeei zabaldu diegu.

— Bestalde, erakundeek Garapenerako Laguntza Ofizialaren ehunekoa kalkulatzeko sistema homogeneo bat ezartzeko proposamena sustatzen jarraitu dugu. Gure helburua da, modu malgu batean, barne-produktu gordinaren % 0,7 bideratzeko adostasuna lortzeko nazioartean.

— Garapenerako politiken koherentziaren arloa landu dugu erakundeekin, eta beren aurrerapausoei jarraipena egin diegu. Helburua hau da: gobernu baten ekintzen multzoak lankide-

tzaren eragina hobetzeko xedea partekatzeko eskatzea, ekintza guztiek giza garapen zuzen eta jasangarriaren helburuekin bat egin dezaten. Laburbilduz, inolako esku-hartzek eztopa edo deuseztatu ditzan lankidetzaren bidez lortutako aurrerapausoak.

Alde horretatik, nabarmendu nahi dugu parte hartu dugula lehen aipatutako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren Politiken Koherentziarako Batzordean, beste hainbat eragilerekin eta gobernuko sailekin batera. Bertan *Hezkuntza-arloko garapen jasangarriako politiken koherentziari buruzko txostena* ondu da. Donostiako Udaleko Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzako Aholku Kontseiluaren lan-talde batean hartu dugu parte baita ere, eta bertan adierazle-matrize bat proposatu dugu hiriaren politikak neurtzeko giza-garapen jasangarriaren ikuspegitik. Halaber, gai hori landu dugu Arabako Foru Aldundiarekin Eskutik Mundura gunean, eta gaiari buruz ditugun proposamenak Gasteizko Udalari helarazi dizkiogu.

Bestalde, euskal erakunde nagusien ekimenei jarraipena egin diegu Garapen Jasangarriako Helburuen (GJH) eta 2030 Agendaren lorpena laguntzeko. Izan ere, garapenerako politiken koherentzia lortzeko tresnak direla uste dugu. Zehazki, ekarpenak egin dizkiogu 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programari eta Trantsizio Sozialaren eta Eusko Jaurilaritzaren 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiaren 2021-2024ko Lan-egitasmoari. Arabako Foru Aldundiak sortutako Araba Helburu gunean hartu dugu parte halaber, hainbat erakundeen ordezkariekin, elkarteekin eta lurraldeko mota oroko eragileekin batera izen bereko plan estrategiko foral berria kontrastatzeko, hari buruz gogoeta

14 ARABA Ondoa de Herriak de Abate - Salatu, 17 de abril de 2021

## GKEEN KOORDINAKUNDEAK: "LORTUTAKO AURRERAPENAK GALTZEKO ARRISKUA DAGO"

**GKE-en Koordinakundeak Arabako Batzar Nagusietako Lendarakitzeta, Euskara, Berlingtasun eta Giza eskubideen I. Batzordean agerraldia egin du**

S. E. F. Dominguez

**GASTEIZ** - Euzkaldun Garapenerako GKE-en Koordinakundeak Arabako Batzar Nagusietako Lendarakitzeta, Euskara, Berlingtasun, Lankidetzeta eta Giza eskubideen I. Batzordean agerraldia egin du asteazkoan. Bertan, garapenerako lankidetzaren lan-egitekin duen 79 GKE-en aurrekontuak aztertzea baliatuz Arabako Foru Aldundiko lankidetzaren politikak eta nazioarteko lankidetzaren eragina aztertu zituzten. Besta beste, gobernuaren aurrekontuaren eragina aztertu zuten ere. "Ez dugu ez ezer gertatu, baina erakundeek aurrekontuak ez dituzte ondo aztertzen, eta horrek eragin handia du giza garapenerako lankidetzaren eraginean", azaldu zuen S. E. F. Dominguez.

**BERLINGTASUN** - "Euzkaldun Garapenerako GKE-en Koordinakundeak Arabako Batzar Nagusietako Lendarakitzeta, Euskara, Berlingtasun, Lankidetzeta eta Giza eskubideen I. Batzordean agerraldia egin du asteazkoan. Bertan, garapenerako lankidetzaren lan-egitekin duen 79 GKE-en aurrekontuak aztertzea baliatuz Arabako Foru Aldundiko lankidetzaren politikak eta nazioarteko lankidetzaren eragina aztertu zituzten. Besta beste, gobernuaren aurrekontuaren eragina aztertu zuten ere. "Ez dugu ez ezer gertatu, baina erakundeek aurrekontuak ez dituzte ondo aztertzen, eta horrek eragin handia du giza garapenerako lankidetzaren eraginean", azaldu zuen S. E. F. Dominguez.



Aztertu zituzten GKE baten informazio berriei buruz dagoen irudia, egia da.

**ERAKUNDEAK**

— **ERAKUNDEAK** — Euzkaldun Garapenerako GKE-en Koordinakundeak Arabako Batzar Nagusietako Lendarakitzeta, Euskara, Berlingtasun, Lankidetzeta eta Giza eskubideen I. Batzordean agerraldia egin du asteazkoan. Bertan, garapenerako lankidetzaren lan-egitekin duen 79 GKE-en aurrekontuak aztertzea baliatuz Arabako Foru Aldundiko lankidetzaren politikak eta nazioarteko lankidetzaren eragina aztertu zituzten. Besta beste, gobernuaren aurrekontuaren eragina aztertu zuten ere. "Ez dugu ez ezer gertatu, baina erakundeek aurrekontuak ez dituzte ondo aztertzen, eta horrek eragin handia du giza garapenerako lankidetzaren eraginean", azaldu zuen S. E. F. Dominguez.

**ERAKUNDEAK**

— **ERAKUNDEAK** — Euzkaldun Garapenerako GKE-en Koordinakundeak Arabako Batzar Nagusietako Lendarakitzeta, Euskara, Berlingtasun, Lankidetzeta eta Giza eskubideen I. Batzordean agerraldia egin du asteazkoan. Bertan, garapenerako lankidetzaren lan-egitekin duen 79 GKE-en aurrekontuak aztertzea baliatuz Arabako Foru Aldundiko lankidetzaren politikak eta nazioarteko lankidetzaren eragina aztertu zituzten. Besta beste, gobernuaren aurrekontuaren eragina aztertu zuten ere. "Ez dugu ez ezer gertatu, baina erakundeek aurrekontuak ez dituzte ondo aztertzen, eta horrek eragin handia du giza garapenerako lankidetzaren eraginean", azaldu zuen S. E. F. Dominguez.

egiteko eta planifikatzeko 2030 Agendaren ikuspuntuaren barruan.

Bestalde, Hegoa Institutuak garapenerako politiken koherentziari eta horiek autonomia-mailan inplementatzeari buruzko ikerketan parte hartzeri gonbidatu gaitu.

— Hiriburuak ez diren euskal udalerriek bultzatutako lankidetzak funtsezkoa iruditzen zaigu. Beraz, udalerririk horietako tokiko erakundeak indartzen eta arlo horretatik nazioarteko solidartatea bermatzen dituzten dirulaguntzen deialdien jarraipena egin dugu.

— Nikaraguan lan egiten duten erakundeen gunea sortu dugu. Erakunde horiek oso kezkatuta daude beren lana etengabe oztopatuta baita-

go, gizarte zibilaren parte-hartzea eragozten ari baita, lan-baldintzak gero eta zailagoak direlako, eta herrialdean giza eskubideak larriki urratzen eta solidaritatea kriminalizatzen ari baitira duela zenbait urtetik. Talde horren helburua eragin politikoa eta soziala izatea izan da, egoera ezagutzera emateko, erreakzioak eragiteko eta arazoak konpontzeko. Hala eta guztiz ere, talde horren jardueraren esparrua Erdialdeko Amerikako beste hainbat herrialdetara hedatu da, hala nola El Salvadorra eta Guatemalara, herrialde horietan antzeko egoerak pairatzen ari baitira. Ez hori bakarrik, munduko beste zenbait lekutara eratu da ere, non giza eskubideen urratzea gero eta larriagoa den.

— Sareen Sarean parte hartu dugu; Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen sareak

biltzen ditu, eta haren xedea da gizarte kohesio-natua, inklusiboa, solidarioa eta parte-hartzailea sustatzea; hots, pertsona guztion eskubideak errespetatuko dituen gizarte bat. Honako parte-hartze hauek nabarmendu ditzakegu: Gobernu Batzordean, eledun baten bidez; Eragin politikoaren komisioan; eta 2030 Agendan zentratutako lan-gune berri baten eraketan. Azken horrek, alde batetik, GJHak Sareen Sareko sareetan sustatzea dauka helburutzat; bestetik, sare hori Eusko Jaurlaritzaren 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak sortutako GJHen eta 2030 Agendaren Eragile Anitzeko Foruan integratzen saiatzen da. Sare horrek egindako inkestan parte hartu dugu baita ere. Horren helburua izan da euskal hirugarren sektoreak gizarteari egindako ekarpena ezagutzera, ezagutarazte eta areagotzea. Horrekin batera maiatzaren 12ko ospakizunean parte hartu dugu, hots, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Egunean.

Sareen Sareak Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia izandako parte-hartzea nabarmendu nahi dugu, halaber, bai eta Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuriaren sorkuntzan ere. Gainera, sare horretako kide garenez, Elkarrizketa Zibileko Mahaian dugun parte-hartzea koordinatuago dago espazio horretan parte hartzen duten hirugarren sektoreko gainerako erakundeekin.



## Mobilizazioa eta gizarte-eraldaketarako hezkuntza

Gizarte-eraldaketarekin dugun konpromisoaren harira, mobilizazioak eta ekintzak antolatu ditugu, sentsibilizaziorako jardunaldiak eta jarduerak egin ditugu, eta GGKE-ek eta beste kolektibo edo eragile batzuek sustatutako egitasmoak babestu ditugu:

— Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak, Bartzar Orokorraren bidez, onetsi du *Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza eredu-dokumentua*. Beste aurrerapauso bat da hezkuntza-paradigma horretarantz gerturatzeko antolaketan.

— Eredu-dokumentu horretatik abiatuta, erakundearen gizarte-eraldaketaren hezkuntzarako barne-estrategia sortzen amaitu dugu; horren helburua lurralde-lanetik abiatzen den ibilbide-orri bat sortzea da. Altekio-Iniciativas hacia la sostenibilidad erakundearen laguntza izan dugu, GGKE-ekin parte-hartzailea den prozesua diseinatzeko eta inplementatzeko.

— Gipuzkoako SOS Arrazakeriarekin, Medicus-mundi Gipuzkoarekin eta beste zenbait kolektiborekin batera, Xenofobiaren eta Arrazakeriaren

aurkako XXIV. Martxarekin lan egin dugu. Martxa martxoaren 21ean egin da, Trintxerpetik Donostiako Bulebarrera arte, *Zure papera garrantzitsua da* lelopean.

— *Eraikuntza* podcasta jarraitu dugu. 4 ataleko saila da, eta kalean bertan herritarrei egindako elkarrizketen bidez gogoetak, esperientziak eta gizartea pandemia ostean berreraikitze proposamenak jaso ditugu. 2021ean, zehazki, honako atal hauek argitaratu ditugu: *Zer balio behar ditugu?*, *Norekin berreraiki behar dugu gizartea?* eta *Eta zerekin konprometituko naiz ni?*



Kontsulta ezazu *Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza eredu-dokumentua* gure **WEBGUNEAN**.



Podcast horren atal guztiak gure **IVOOX**-eko kanalean daude eskuragarri.



— Urtero, beste hainbat kolektiborekin batera, Donostiako Udalarekin lan egiten dugu Gipuzkoako hiriburuko Giza Eskubideen Zinemaldian. 2021ean, apirilaren 23aren eta 30aren artean ospatu da. Edizio honetan, gainera, Begira TÚ on line jolasa sortu dugu; eta lehiaketaren programazio ofizial paraleloari erantsi zaio. Jarduera galdetegi labur eta dibertigarri batean datza, giza eskubideei buruzko gogoeta sustatzeko. Interesa pizteko eta parte-hartzera deitzeko, bideo iradokitzailea sortu dugu, eta aretoetan proiektatu da zinemaldiaren emanaldien zehar. Gainera, jolasa amaitzean, parte-hartzaileek ekintzara pasatzeko proposamenak eta GGKE-ei buruzko informazioa jaso dute, eta bidezko merkataritzako produktuen zozketa batean sartu dira.

— Irailaren 30ean, Galdakaon, Piedra de toque irrati-saioa antolatu dugu Iñaki Makazaga kazetariarekin. Kalean egindako irrati-programa izan da, bizilagunak publiko moduan izanik, eta bertan solidaritatearekin, giza eskubideekin eta lankidetzarekin zerikusia zuten istorioak zabaldu ditugu. Dalila Argueta giza eskubideen defendatzaile hondurastarrak hartu du parte, eta borroka eta erresistentziako testigantza adierazi du. Miren Alapont eduki dugu gurekin, halaber, Galdakaoko Erabide Emakume Elkartearen ordezkaria. Kolektibo horrek dokumental parte-hartzaile baten sorreran izandako esperientzia azaldu du; dokumentalak zaintzei buruz gogoeta piztea du xedetzat. Ekimen berritzailea izan da, eta aurretik Nikaraguan izandako esperientzia baten bidez sortu da. Libe NARBATE Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen ordezkariak parte hartu du baita ere, GGKE-en lana ezagutzera emateko eta horrela gizarte-eraldaketa lagunduko duten herritar kritiko, aktibo eta konprometituak sortzeko. Gainera, Inun kantautorearen musikak saioa eta jarduera girotu du.



Gure **YOUTUBE**-ko kanalean ikus dezakezu iragarki-bideoa.

Entzun edo ikusi izan ezin bazenuen, Piedra de toque irrati-programa gure **WEBGUNEAN** entzun dezakezu.



— Urriaren 17a Pobreziaren Aurkako Nazioarteko Eguna da, eta, Zero Pobrezia kanpainaren esparruan, pobrezia eta berdintasunik eza eragiten dituzten arrazoiak salatu ditugu. *Zure txertoak ez nau babesten* lelopean, zenbait kolektibok bat egin dugu Pobreziaren Aurkako Astean. Gipuzkoan, honako jarduera hauek antolatu ditu Donostiako Zero Pobrezia plataformak, eta Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak dinamizatu ditu:

Urriaren 13an, Klub Nautikoaren kanpoaldean, prentsaurrekoa antolatu dugu Pobreziaren Aurkako Astea aurkezteko. Urriaren 15ean, goizean goiz, kale-ekintza bat egin dugu Donostian zehar. Bankuetan, markesinetan eta hiriko materialetan COVID-19aren aurkako txertaketa bidegabea eta desberdina salatuzko mezuak jartzean datza, gogoeta sustatzeko. Urriaren 17an, betiko bizikleta-martxa egin dugu Haizearen Orraziatik Donostiako Bulebarrera arte, Txita Sound System-en musika-giroarekin. Horrekin batera, DBUSekin elkarlanean, egun horretan Zero Pobrezia kanpainaren kartelak jarri ditugu hiriko autobus publikoetan. Urriaren 19an, Kresala zineklubarekin elkarlanean, *Txatar-biltzailearen emaztea* pelikula proiektatu dugu. Osasuna eskuratzeko aukeran dagoen desberdintasunari heltzen dio pelikulak. Ikusketa ondoren, Inma Gala Medicusmundiren zuzendaria eta gaiaren inguruko adituarekin eztabaida egin dugu. Gainera, Donostiako Zero Pobrezia plataformak Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen *Zein da zein?* sensibilizazio-kanpainaren ale didaktikoa banatu du Donostialdeko ikastetxeen artean. Horren helburua irakasleak Pobreziaren Aurkako Astean ale hori erabiltzera animatzea izan da.





— Azaroaren 28an, Gasteizko Europa Biltzar Jauregian, *Gasteiz konexioan* sentsibilizazio-jardunaldiaren seigarren edizioa egin dugu. Interneten bidez eman da halaber. Lorea Intxausti eta Xanti Korkostegi aktoreek aurkeztu dute; EiTbko *Go!azen* gazteentzako programan agertzeagatik dira ezagunak. *Go!azen elkarrekin! Munduko gazteak batera pandemiari aurre egiten* tituluarekin, hain zuzen ere, helburua munduko hainbat herrialdetako umeei eta nerabeei ahotsa ematea izan da, pandemia globalari buruz gogoeta egiteko. Gasteizko haurtzaroko eta nerabezaroko Elkargunearen eta Itaka-Escolapios kolektiboaren gazte ordezkariak hartu dute parte, bai eta Togoko, Gaboneko, Kolonbiako eta Indiako umeei ere. Gasteizko Ikigai Dance Studio hiri-dantzako eskolako gazteek hartu dute parte, halaber.



Gure **YOUTUBE**-ko kanalean ikus dezakezu bideoa.



— Azaroaren 16tik 21era, Aguraineko Aste Solidarioa antolatu dugu Arabako Foru Aldundiarekin eta Aguraineko udalarekin batera. Gai nagusia elikadura-burujabetza izan da, eta hiritarren artean gogoeta piztea eta solidaritatea bultzatzea izan du helburutzat. Azaroaren 16an Bizilurrek sortutako *Bide berriak: elikadura-burujabetza Euskal Herrian* dokumentalari buruz bideo-foro bat egin dugu. Mugarik Gabe eta Mundubat erakundeek, Unai Aranguren nekazari eta adituak, eta gai honetan jakitunak diren Nikaraguako pertsonak hartu dute parte. Gainera, herritarrek aste osoan zehar Manos Unidas-en *El desafío del hambre* erakusketa bisitatu ahal izan dute. 20an, Mundubatek Hala Bedi irati-programaren saio bat antolatu du herrian bertan; elikadura-burujabetzari eta landa-eremuetako emakumeen egoerari heldu dio.



— Bestalde, heziketa-zentroetan zenbait lantegi antolatzen lagundu dugu. Gure *Zein da zein?* sentsibilizazio-kanpainaren esparruan, urrian, Bakerako Lankidetzaren Batzarrea eta Manos Unidas elkarteek beren proiektuen eta esperientzien berri eman diete Francisco de Vitoria BHIko eta Corazonistas ikastetxeetako ikasleei, Gasteizko zentroak biak.

— Mundua eskolan, eskola munduan programak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak bultzatutakoa, arrazakeriaren eta bazterkeriaren prebentzioan lagundu nahi du, bai eta enpatia eta solidaritatea ikastetxeetan sustatzea ere. Helburu hori lortzeko, immigranteen istorioei esker, tailerrak antolatu ditugu honako ikastetxe hauetan, eta beren irakasleekin lan egin dugu: Corazonistas (Gasteiz), Laudioko Institutua, Ama Guadalupekoa eta Egiluze Ikastetxea (Hondarribia) eta Azkorri Ikastetxea (Getxo).

— Unibertsitate Kritiko Sarea GGKE-ek (eta haien artean Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak), bai eta Gipuzkoako UPV/EHU campuseko unibertsitateko eragileek osatzen dute. Sare horrek xede du ahaleginak koordinatzea, baliabideak optimizatzea eta unibertsitateak gizartean ahalik eta eragin handiena lortzea. 2021. urtean sare horretan parte hartu eta lagundu dugu, adibidez, 2022an egingo den Universidad Popular de los Movimientos Sociales-en antolaketan.

— Gure *Hezkuntza Baliabideen Katalogoa* eguneratu dugu Interneten; kide diren GGKE-en hainbat material biltzen ditu. Tresna hori erreferentzia erabilgarria da ikastetxeentzat eta partikularrentzat, eta baliabideetan bilaketa zehatzak egiteko aukera ematen du, gai jakinen edo hartzaileen adin-tarteen arabera. Gainera, hezkuntza-erakunde nagusiei ere ezagutarazi diegu material hori.

Kontsulta ezazu *Hezkuntza Baliabideen Katalogoa* gure **WEBGUNEAN**.



# Sektorea eta zerbitzuak sendotzea

## Jendeari, GGKE-ei eta erakundeei emandako arreta

— Bazkide diren erakundeei, besteak beste, gai hauei buruzko informazio- eta aholkularitza-zerbitzua eman diegu: lankidetzak, diru-laguntzen deialdiak, zerbitzu eta baliabideak, enplegu- eta boluntarioritza-eskaintzak, prestakuntza, materialaren mailegua, genero-berdintasuna, komunikazioa, eragin politiko, mobilizazio soziala, gizarte-eraldaketarako hezkuntza eta administrazio- eta lege-izapideak.

— Informazioa eta aholkuak behar zituzten pertsonak lagundu ditugu, batez ere GGKE-etan boluntarioritza-lanak egiteari eta euskal erakundeek esku hartzen duten hegoaldeko herrialdeak solidartate-gakoan bisitatzeko aukerari buruz.


Hegoaldearekin elkarlanean aritu nahi duzu? Nola parte hartu dosierra kontsulta dezakezu gure **WEBGUNEAN**.



— Lan-poltsa kudeatu dugu, eta jasotako dohaintzak bideratu ditugu. GGKE-ekin aritzen diren eta bazkide diren erakundeei beherape-nak, hobariak edo ekarpen solidarioak ematen dizkieten eta sozialki irizpide arduratsuak dituzten enpresei buruzko informazioa bildu dugu.

— Bitartekaritza-lanak egin ditugu GGKE-en eta erakundeen edo beste erakunde eta eragile batzuen artean. Lan horretan jarduerekin, ekimenekin eta espazioekin lotutako proposamenak bideratu dizkiegu erakundeei, haietan parte hartu ahal izateko, eta elkar hobeto ezagutu eta hobeto koordinatu ahal izateko.

— Abenduaren 18an, Gasteizko Udalarekin eta Arabako Foru Aldundiarekin batera, *Topo eginez: GGKE-en eta sorkuntza artistikoarekin zerkusia duten kultur eragileen arteko topaketarako eta ezagutzarako jardunaldia* egin dugu Arabako hiriburuan. Horren helburua Gasteizen eta Araban egindako lankidetzak-erperientzia arrakastatsuak ezagutzea, eta lankidetzak berriak sortzeko harremanak sustatzea izan da.



— Bizkaiko Foru Aldundiarekin lan egin dugu Bizkaiko lankidetzaren hogeigarren urteurrena ospatzeko eginkizuna antolatzeko; Bilbon egin da abenduaren 15ean. Erdietsitako lorpenak ospatzea eta lankidetzak lurraldean dituen erronkak antzematea izan du xedetzat. Azul Tejerina kazetariak aurkeztu zuen eginkizuna, eta Teresa Laespada Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru-diputatuak, eman dio hasiera. Carlota Sanz Doughnut Economics Action Lab fundatzailearen eskutik *Donutaren ekonomia* konferentzia jaso dugu. Horrekin batera, mahai-ingurua egin dugu, eta pertsona hauek hartu dute parte: Naxto Rodríguez (Bizkaiko Foru Aldundiko Lankidetzaren eta Aniztasunaren zuzendari nagusia); Olatz Ecenarro (Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen lehendakariordea); Lucía Ixchiu (Guatemalako giza eskubideen defendatzailea); eta Iratxe Braceras kooperanteak. Arymux zeinudantzako antzezpen-konpainia inklusiboak antzezpena egin du, eta Ángel María Remírez de Ganuza Ayastuy irudigilearen irudikapen grafikoa izan dugu.

— Batzar Orokor telematikoa egin dugu ekainaren 23an, bai eta 20 lurralde-batzar ere, aurrez aurrekoak zein birtualak (9 Araban, 3 Bizkaian eta 8 Gipuzkoan). Batzar horietan eta gainerako lantaldeetan GGKE-ek parte-hartze oso aktiboa izan dute.

— Euskaraldia kanpaina prestatzeko bilertan egon gara. Ekimen horretan parte hartzen dugu, eta bere helburua euskararen erabilera bultzatzea da.

— Espainiako Garapenerako erakundearen Koordinakundeko kide gara, eta, beraz, haren lanaren jarraipena egin dugu eta haren ekimenak bultzatu ditugu. Honako gune hauetan izandako parte-hartzea nabarmentzen dugu, besteak beste: apirilaren 20an, Batzar Orokor telematikoa; azaroaren 5ean, zuzendaritzaren eta lehendakaritzaren online bileran; GGKE-en Koordinakunde Autonomikoen Sarearen hainbat

urteroko bileretan; azaroaren 26an eta 28an, Murtzian, GGKE-en Koordinakunde Autonomikoen Sarearen urteroko Bilkuran. Gainera, nabarmendu behar dugu Espainiako Garapenerako erakundearen Koordinakundearen Gobernu Batzordean sartu garela II. lehendakariordetzaren bitartez. Horrek haren agendaren, lan-gaien eta erabaki-guneen jarraipen zorrotza ekarri du.



Espainiako Garapenerako erakundeen Koordinakundearen eta koordinakunde autonomikoen Genero-taldeen Sarea berraktibatu da. Koordinazio-gunea da, aipatutako taldeen artean sinergiak sortzeko eta genero-berdintasunaren kontuetan aurreratzeko Espainiako Garapenerako erakundeen Koordinakundearen. Halaber, GGKE-en Koordinakunde Autonomikoaren Sarearen Komunikazio-taldean parte hartzen hasi gara, hainbat tresna, dokumentu eta lan-ildoak komunean jartzeko eta partekatzeke, eta orobat baterako komunikaziorako kanpainetan edota ekimenetan ekarpenak egiteko.

— Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Defendatzailerak Aldi Baterako Babesteko Euskal Programaren aukeraketa-batzordearen parte da. Horregatik, 2021ean ekimen horretan parte hartu dugu, gure arlotik ekarpenak egin dizkiogu eta bere lana lagundu dugu.

— Eusko Jaurlaritzaren Ignacio Ellacuría sariaren epaimahaiaren parte gara. Sari horren xedea erakundeen, kolektiboen, pertsona indibidualen edo ekimenen jarduketak aitortzea da; zehazki herrialdeen arteko berdintasunaren eta justiziaren aldeko eta pobrezia gainditzeko borrokan. Horregatik, erantzunbehar horretatik eratorritako bileretan parte hartu dugu.

— Eusko Jaurlaritzaren Euskadiko Gazteak Lankidetzan programaren partaide gara, halaber. Ekimen horren helburua hau da: biztanle gazteak lankidetzajarduketan bitartez sentibilizatzeko euskal GGKE-ek esku hartzen duten herrialdeetan, eta solidaritatean oinarritutako kultura sustatzea herrien eta kulturen artean. Programa prestatzeko hainbat bileretan hartu dugu parte, zehazki.

— Gainera, Euskadiko Finantza Etikoen Elkartearen kide gara. Haren helburua da Euskadin banka etikoaren sistema bat finkatzen laguntzea. Maiatzaren 10ean aurrez aurre eta telematikoki egin den Batzarrean parte hartu dugu.

— Halaber, zenbait gairi buruzko 14 posizionamendurekin, kontzentrazioekin, manifestazioekin eta kale-ekintzarekin bat egin dugu; batzuk kide diren erakundeek izan dira, eta beste batzuk, berriz, kanpoko kolektiboek.

— Gure egoitza, Araban, Gasteizko Simone de Beauvoir Elkartearen etxean dago; Bizkaian, Bilboko Boluntaren Ganbara elkargunean; eta Gipuzkoan, Donostiako lokal batean, beste erakunde batzuekin batera. Testuinguru horri esker, beste pertsona batzuek eta hartzaile gehiagorengana eta askotarikoengana iristen gara. Gainera, Gasteizko Udalak utzitako lonja bat ere badaukagu, bazkide diren GGKE-en materialak gordetzeko.



## Prestakuntza eta jardunaldiak

GGKE-ek zer prestakuntza-behar dituzten aztertu dugu, eta erakundeen eta beste zenbait eragileren proposamenak aztertu ostean, honako ekintza hauek antolatu ditugu:

— Maiatzaren 13an *Sare sozialetan euskaraz trebatzeko formakuntza* prestakuntza-saio telematikoa antolatu dugu. Xabier Artolak, AEK-ko kideak, eman du. Orain dela zenbait urte hasitako prestakuntza-prozesu baten esparruan dagoen saioa da, eta bere helburua euskararen erabilera bultzatzea da GGKE-etan eta lankidetzaren sektorean.

— Maiatzaren 25ean *Iraunkortasun ekonomikoa GGKE-etan: krisi-garaietarako tresna erabilgarriak* hitzaldia antolatu dugu, modu telematikoan. La Tercera Pata erakundeko Pablo Sal-ek eman du. Gune horretan, zehazki, prestakuntza-prozesu zabalagoa sortu da honako 4 saioen bidez (lehenengo hirurak telematikoak izan dira, azkenekoa aurrez aurrekoa): *Iraunkortasun ekonomikoa GGKE-etan*, azaroaren 18an; *Kontabilitate praktikoa eta proiektuen ekarpen-marjina*, abenduaren 2an; *Urteko aurrekontuak eta alorraren araberako lana*, abenduaren 16n; eta *Emaitzak eta kezak partekatuz*, 2022ko otsailaren 7an eta 10ean, Donostian eta Bilbon hurrenez hurren.

— Uztailaren 6an, Bilbon, *Eraldaketa* lankidetzaren *Garapenerako lankidetzaren berri etengabeko eraldaketan dagoen munduan mahai-inguruaren II. jardunaldia* egin dugu. Interneten bidez eman dugu baita ere. Pilar Kaltzada kazetariak moderatutako bi mahai-inguru egin di-

tugu. Lehenengoan, *Aurrera begiratu atzera begiratzeari utzi gabe: Euskadiko garapenerako lankidetzaren berri baterako gakoak* izenburupean, hainbat adituk hartu dute parte. Horiek hainbat gaiei buruzko artikulu motibagarriak eta iradokizaiak idatzi zituzten aurretik, eta honako hauek izan ziren: Gloria Guzmán, Hegoa Institutuko ikertzailea; Javier Arellano Yanguas, Deustuko Unibertsitateko Gizarte eta Giza Zientzietako Fakultateko dekanoa; Mertxe Larrañaga, ekonomia feministako aditua eta UPV/EHUko nazioarteko ekonomiako irakasle eta ikertzailea; eta Andrés R. Amayuelas, Espainiako Garapenerako erakundearen Koordinakundearen lehendakari ohia (Miquel Carrillo ordeztu zuen, erakunde horren batzordekidea eta artikulua idazlea). Bigarren eztabaidan, *Alderdi politikoen jarrerak Eusko Legebiltzarrak izapidetzen ari den etorkizuneko lankidetzaren lege berriaren aurrean*, honako ordezkari politikok hauek parte hartu dute: Maitane Ipiñazarrek, EAJ-PNVkoak; Diana Urreak, EH Bildukoak; Iñigo Martínezek, Elkarrekin Podemoskoak; Teresa Laespadak, PSE-EEkoak; eta Carmelo Barriok, PP-Ciudadanosekoak.



Jardunaldiaren bideoak ikusi eta artikuluak irakurri ditzakezu gure **WEBGUNEAN**.



— TicketBai online fakturazio-sistema berriari buruzko hainbat prestakuntza bultzatu ditugu, halaber. Horien artean, bereziki nabarmendu nahi dugu La Tercera Patak irailaren 16an egin-dako hitzaldi telematikoa; irabazi-asmorik gabeko erakundeei bideratuta egon da, eta Bizkaiko Foru Aldundiak eman du.

— Irailaren 22an, Bilbon, *Sexu- eta genero-aniztasuna* hitzaldia antolatu dugu. Aitzole Araneta adituak eman du. Barne-saio horren helburua gaian sakontzea izan da, gure erakundeetan jarrera-hartze adostuak eratzeko.

— Irailaren 24an eta 25ean, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin eta He-goia Institutuarekin batera, *Giza eskubideak, guztientzako eskubide? Begirada kritiko bat hezkuntzatik* izeneko jardunaldiaren IV. edizioa egin dugu, gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren alorrean. Jardunaldiaren helburua izan da gogoeta piztea eta giza eskubideen ikuspegia hezkuntzaren arloan praktikan jartzeko moduan sakontzea. Lehen saioan, Helena Malenok (kazetaria eta giza eskubideen defendatzaileak) eta Arturo Orregok (filosofoa eta hezkuntzako espezialistak) elkarrekin hitz egin dute. Maria Oianguren Gernika Gogoratuz ikerketa-zentroaren zuzendariak moderatu du saioa. Bigarren jardunaldian, Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritzako Pepe Ruizen moderazioarekin, giza eskubideei buruzko esperientzia eraldatzaileen mahai-ingurua egin dugu. Honako erakunde hauek hartu dute parte, hainbat ikuspegi heltzeko: Solidaridad Internacional-Nazioarteko Elkartasuna (migratzaileen eskubideak); Mugen Gaietik (LGTBI kolektiboko pertsonen eskubideak); eta Peruko Movimiento Manuela Ramos

(emakumeen eskubideak). Azken hitzaldia, *Giza eskubideen ikuspegi humanista, antropozentrikoa eta estatu-zentrikoa hezkuntzan*, Reinaldo Matías Fleuri brasildarraren esku geratu da; hezkuntzako doktorea eta giza eskubideen eta deskolonizazioan aditua da.

Jardunaldiaren bideoak eta errelatoretza ikusi ditzakezu gure **WEBGUNEAN**.



— Urriaren 18an, Arabako Foru Aldundiarekin batera, saio informatibo bat antolatu dugu erakunde horren lankidetzaren arloko deialdiei buruz. Horren helburua foru-erakundearen eta GGKE-en arteko bilkura-gunea sortzea izan da, tresna ezberdinen garapena partekatuzeko, zalantzak argitzeko, arazoak amankomunean jartzeko eta balizko hobekuntzak eztabaidatzeko.




— Urriaren 28an hiru Foru Aldundietako ogasunekin bilkura telematiko bat antolatu dugu. Bere izenburua *GGKE-ri egindako dohaintzengatiko desgrabazioak: epeak, araudia, prozedurak... gai komunak eta aldeak* izan da. Bilera horren xedeak hauek izan dira: erakundeei informazio erabilgarria ematea, prozedura ezberdinak ezagutzeko, eta erakundeen zalantzak edota kezak instituzioei transmititzea.

— Abenduaren 20an, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin batera, erakunde-barneko VI. genero-jardunaldiak antolatu ditugu Bilbon, *Lankidetzaren feminizarantz* izenburuarekin. Jardunaldi horietan beste pauso bat eman izan nahi dugu, asmo handiko eta ikuspegi irekiago eta inklusiboagoa duen helburu horretara gerturatzeko, feminismoa politika publikoen ardatz antolatzailetzat aldarrikatzen baitu. Mercedes Ruiz-Giménezek *Lankidetzaren feminista mundua eraldatzeko lankidetzaren sistema berri gisa* aurkezpena egin du. Horrekin batera, Clara Murgialday Martínezek moderatutako mahai-ingurua egin dugu, pertsona hauen parte-hartzearekin: Marina Estarellas Fiol (Direcció General de Cooperació de les Illes Balears); Evelin Carrasco López feminista deskoloniala eta ikertzailea; Verónica Castañeda Blandón (Espainiako Garapenerako erakundearen Koordinakundekoa); eta Estrella Ramil Paz, aktibista feminista eta feminismoko, generoko eta nazioarteko lankidetzako aholkularia.



Jardunaldi horren bideoak gure **WEBGUNEAN** eskuratu ditzakezu.






— Halaber, urteroko prestakuntza-saio berri bat egin dugu, kide diren GGKE-ek emandakoa eta gainontzeko erakundeei bideratutakoa. Saio horren xedeak honako hauek izan dira: erakundeen artean beren ezagutzez eta esperientziez aritzea, elkarrekiko lankidetzaz laguntzea, gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren ikuspuntua sendotzea erakundeetan, eta sektorea indartzen duten ezagutzen sare bat sortzea. Abenduaren 15ean, zehazki, Zabalketak Bilbon saio bat eman du, izenburu honekin: *Garapenerako lankidetzarako-proiektuak ikasgeletan txertatzeko metodologiak*.

— Bestalde, hainbat gaiet buruzko prestakuntza telematikoen ziklo labur bati segida eman diogu. Horren helburua baliabide teknologikoak

eta metodologikoak gerturatzea izan da, pandemia globalaren esparruan erakundeak eta beren kideak laguntzeko, erakunde-mailan zein maila pertsonalean. Martxoaren 16an, zehazki, *Pandemia garaian... Gakoak interneteko zuzeneko bidez GGKE-en ekimenak igortzeko* tailerra antolatu dugu. Nico Garcíaek, Erreka Multimediaiko kideak, eman du. Maiatzaren 20an *Pandemia garaian... Zibersegurtasuna* saioa egin dugu, Elena López-Maya Asísek, Bakea eta Duintasuna elkartearen kideak emandakoa. Azkenik, irailaren 23an *Pandemia garaian... Espazio erdi-presentzialak errazteko gakoak* antolatu dugu. Jorge Navacerradak eman du, Altekio-Iniciativas hacia la sostenibilidad erakundearen kideak.



Bestalde, beste eragile batzuek antolatutako kanpoko prestakuntza-saioetan ere izan da Euskadiko GGKE-en Koordinakundea, kasu batzuetan entzule gisa eta beste batzuetan partaide, hizlari edo laguntzaile gisa. Horien artetik, azpimarratzekoak dira honako hauek:

— Ekainaren 5ean, *Politiken koherentzia arlo deszentralizatuan: Euskadiren eredia* tailerra telematikoki eman diogu Espainiako Garapenerako erakundearen Koordinakundearen Koordinakunde Autonomikoen taldeari. Tailer horretan honako hau aztertu dugu: gobernu azpi estaletan eragin politikoa izateko estrategia inplementatzeko modua, garapenerako politiken koherentzia lortzeko.

— Ekainaren 15ean, Donostian, *Escuela de aprendices: ¿cómo imaginar comunidades de práctica en el siglo XXI?* uda-ikastaroan hartu dugu parte. Bertan Unibertsitate Kritiko Sareak egin duen lana ikusgai jarri dugu, baita Universidad Popular de los Movimientos Sociales-ek euskal esparruan ezartzeko esperientzia ere.

— Irailaren 15ean UPV/EHUREN udako ikastaroan parte hartu dugu. *2030 Agendarako erronkak eta indarguneak: hirugarren sektorearen, elkartearen eta gizarte-mugimenduen eginkizuna* izan du izenburutzat, eta Donostian egin da. Bertan, gai horren inguruan daukagun ikuspegia partekatu dugu, eta Agendaren ezarpenaren eredu arrakastatsuak aztertu ditugu hirugarren sektore sozialaren, elkartearen eta mugimendu sozialen ikuspuntutik.

— Irailaren 16an, Donostian, *Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagunduk Giza mugikortasunaren erronka pobrezia, klima-aldaketaren eta gaztazken testuinguruan. Arrazoiak, igarotzea, helmuga eta itzulera* antolatu du UPV/EHUREN udako ikastarorako. Esparru horretan, Euskadiko GGKE-en Koordinakundetik *Xede-lurraldeetako arazoak* mahai-ingurua moderatu dugu. Ho-

rrekin batera, irailaren 17ko saioan, *Itzuleraren erronkak eta komunikabideen begirada* mahai-inguruan hartu dugu parte. Bertan, honako hau aurkeztu dugu: gure ustez komunikabideek izan behar duten papera migrazioarekin eta garapenerarekin zerikusia daukaten gaitan, GGKE-en eginkizuna, eta hainbat proposamen gizarte-eraldaketarako komunikazioaren ikuspegitik.



## Ikerketak

Lankidetzaren sektorea hobetzen eta sendotzen laguntzeko, honako ikerketa hauek sustatu eta egin ditugu:

— 2021ean *Giza garapen jasangarrirako politiken koherentzia. Enpresak nazioartekotzeko Euskadiko politikaren bereizgarri nagusiak* ikerketa aurkeztu dugu. Aurreko urtean egin genuen, Bakea eta Duintasuna-OMAL Latinoamerikako Multinazionalen Behatokiarekin erakundearekin batera. Lan horren helburua enpresak nazioartekotzeko euskal politikaren analisi osoa lortzea izan da, eta horrekin batera Euskal Autonomia Erkidegoaren foru-sarean eta Eusko Jaurlaritzaren jarduketan sakontzea. Txosten horrek politika zehatz horren ezaugarrien analisi kritikoa egiten du, eta zenbait gomendio ere ematen ditu, politika hori koherentea izan dadin giza garapen ekitatiboa eta jasangarria lortzeko helburuekin. Gainera, kontuan hartzen du, beti, munduan pobrezia desagerrarazi beharra eta desberdinkeria guztiak gainditu beharra.

Argitalpena ikusi dezakezu **WEBGUNE** honetan.



— Euskal GGKE-en lankidetzaproiektuen eraginaren analisia hasi dugu, halaber. Zehazki, Chiapas aukeratu dugu aztergai moduan. Izan ere, bertan erakundeek euskal erakunde publikoek lagundutako lan-ibilbide handia daukate. Lan horren bidez azken 10 urteetako esku-hartzeen eragina neurtu nahi izan dugu, proiektu puntualak ebaluatzetik haratago. Euskal erakundeek ekimen solidarioei esker emakumeengan eta gizonengan lortutako aldaketa eta eragin sakonen diagnosi zabalagoa lortu nahi dugu. Lana egiteko Bernardo García aholkulariaren laguntza izan dugu, eta hainbat GGKEekin elkarriketak eta tailer parte-hartzaileak egin ditugu. Horrekin batera, kontraste-talde baten bidez informazioa lortu dugu, eta proiektuen dokumentuak aztertu ditugu genero-ikuspegitik eta aldaketaren teoria metodologia moduan erabiliz.

— Bazkide diren GGKE-en artean beste galde-tegi bat egin dugu sektorearen egungo egoera eta bere garapena ezagutzeko. Horren helburua sektorea berrindartzea eta datu eguneratuak eskuratzea izan da, eragin politiko eta soziala lortzeko lana egiteko. Ikerketak 2020an jasotako honako datu hauek biltzen ditu: erakundeek barne-egiturenak, diru-sarrera eta gastuenak, gizarte-eraldaketarako lankidetzak eta hezkuntza-proiektuenak, eta erakundeek esku-hartzea daukaten eremu geografikoenak, besteak beste. Edizio horrek berritasun bat dauka, hala ere: Socialco enpresaren laguntza izan dugu. Hori Espainiako Garapenerako erakundearen Koordinakundearen, bai eta bestelako koordinakunde autonomikoen sektoreari buruzko inkestez

arduraten da, eta beraz haren metodologia jarraitzea erabaki dugu. Txostenaren azkeneko emaitza 2022an argitaratuko dugu modu grafikoagoan. Gainera, datuen kazetaritzaren ikuspegian oinarritu gara, horrek lortutako emaitzak hobe komunikatzea ahalbidetzen baitu, ikusgarriagoak, ulerterrazagoak eta eskuragarriagoak izan daitezten.



## 2022-2030eko Plan Estrategikoa

Prozesu zabal eta parte-hartzailea hasi dugu erakundearen ibilbide-orri berria sortzeko. 2022an amaitu da, 2022-2030eko Plan Estrategikoa Batzar Nagusian onetsi ondoren. Horretarako, lan-taldeek berriazko saioak egin dituzte Plan Estrategikoari ekarpenak egiteko. Orobat, bi lan-saio egin ditugu GGKE-ekin: lehenengoa 2021eko azaroaren 11an izan da, Eginon, eta bigarrena 2022ko urtarrilaren 28an, Durangon. Bestalde, lankidetzaren arloan nagusi diren zazpi euskal erakundearen arlo politiko edota teknikoaren ordezkariak eta arduradunak elkarrizketatu ditugu: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia; Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak; eta Gasteizko, Bilboko eta Donostiako udalak. Gainera, 2022an jadanik, Erakunde Arteko Komisioarekin lan-bilera bat egin dugu Bilbon, hots, aipatutako zazpi erakundeek eta Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak osatutako organoarekin. Era berean, kide diren erakundeei buruzko informazioa lortzen jarraitzeko, inkesta bat egin dugu beren pertzepzio, proposamen, eskaera edota behar nagusiak jasotzeko, baita Euskadiko GGKE-en Koordinakundearekin daukaten gogobetetasun-maila jakiteko ere.

Plan Estrategiko berria kontsulta dezakezu gure [WEBGUNEAN](#).



# Komunikazioa

Gizarte-eraldaketarako komunikazioaren ikuspegitik, gure inguruan eta mundu-mailan jarrera-aldaketak eragiteko eta injustizia ezak eta giza eskubideen urraketak salatzekeo ekintzak gauzatu ditugu:

— COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren lehen urteurrena dela eta, *Urtebeteko pandemiaren eragina euskal lankidetzaren lanean ari den herrialde kalteberetan* txostena egin dugu. Bertan, hainbat esparruren balantzea egin dugu: GGKE-ek esku hartzen duten herrialde pobretuetan larrialdi-egoerak izan dituen ondorioena, Euskadiren erantzun solidarioarena eta erakundeek ondorioak arintzeko lana. Euskal instituzioen papera aztertu dugu halaber, eta pandemia amaitzeko munduko txertaketaren erronkan jarri dugu arreta. Azkenik, 10 proposamen egin ditugu inor krisi honetan atzean gera ez dadin.



Txostena GGKE-en, kooperanteen eta bertako langileen informazioarekin, bai eta kanpoko erreferentzien eta datu adierazgarriekin ere osatu dugu, eta komunikabideetan interes handia piztu du.

— Komunikabideei bideratutako hainbat jarduketa egin ditugu, erakundearen jarduerak, posizionamenduak eta aldarrikapenak ikusgai egiteko. Horrek inpaktu mediatiko ugari lortzea ahalbidetu du. Alde batetik, Pobreziaren

aurkako Astea dela eta (urriaren 13tik 15era) Donostian egindako ekintzak edota prentsaurrekoak nabarmendu ditzakegu, adibidez. Bestetik, prentsa-ohar ugari argitaratu ditugu. Honako hauek azpimarratu ditzakegu, besteak beste: urtarrilaren 13koa, *Giza garapen jasangarrirako politiken koherentzia*. *Enpresak nazioartekotzeko Euskadiko politikaren bereizgarri nagusiak* txostenari buruzkoa; edo urtarrilaren 25, maiatzaren 4 eta uztailearen 12koak, *Eraikuntza* podcastari buruzkoak. Martxoaren 15ean komunikabideei bidali diegun prentsa-oharra azpimarratu behar dugu, halaber, *Urtebeteko pandemiaren eragina euskal lankidetzaren lanean ari den herrialde kalteberetan* txostenari buruzkoa; edota apirilaren 22koa, Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiko Begira TÚ on line jolasari buruzkoa. Eta ezin dugu ahaztu uztailearen 1eko prentsa-oharra. Bertan, Euskadiko GGKE-en Koordinakundea lankidetzarako euskal lege beriarrentzat egindako proposamenei buruz arituda, *Eraldaketerako lankidetzaren garapenerako lankidetzaren berria etengabeko eraldaketan da goen munduan* jardunaldia dela eta. Azkenik, *Gasteiz konexioan* jardunaldiari buruzko azaroaren 28ko prentsa-oharra aipatu nahi dugu baita ere.

Era berean, urtean zehar hainbat adierazpen argitaratu ditugu, hala nola urriaren 4koa, Euskadi-Cubari buruzko zenbait komunikabideetan azal dutako berrien ondoren argitaratutakoa. Bertan erakunde horri gure elkartasuna adierazi diogu, eta dirulaguntzen gardentasuneko eta independentziarako, bai eta hiritarren kontu-ematerako mekanismoen garrantzia azpimarratu dugu.





Azkenik, hainbat iritzi-artikulu argitaratu ditugu komunikabideetan. Horien artean, *Elkartasuna da erantzuna* testua nabarmendu dezakegu. Bertan pandemiaren lehen urteurrenari eta lankidetzaren eginkizunari buruzko gogoeta egin dugu. Beste bi artikulu azpimarratu ditzakegu, baita ere: *Istorio txikien balio handia* eta *Garapenerako lankidetzarako garai berria Euskadin*, hain zuzen ere. Horien xedea GGKE-ek egingdako ekarpenen balioa azpimarratzea izan da, Eusko Jaurlaritzak lankidetzarako euskal lege berri bat garatzen ari zen garaian.

— Astebururo parte hartu dugu Radio Euskadiren La Galería programan, Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen eta kide diren erakundeen iritzi-zutabeen bidez.

— Munduan gertatu diren larrialdi jakin batzuk direla eta, abuztuan Haitin izandako eta kalte larriak eragindako lurrikara zehazki, GGKE-ek bertan egindako lanari buruzko informazioa bildu dugu Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntzarekin. Xedea izan da erantzuna ematea gizartearen, erakundeetara eta komunikabideen kontsultei, eta herritarren elkartasuna bideratzen laguntzea.

— Gure webgunea etengabe eguneratu dugu, eta, astero, Munduz Mundu buletina bidali diegu izena emanda dauden pertsonetara. Gainera, kide diren GGKE-ek Gure Gauzak barne-buletina bidali diegu.

— Orobat, komunikazio-lana errazteko tresnak eskaini dizkiegu GGKE-ek; adibidez, bozemaileentzako argudioak eta komunikabideekin harremanetan jartzeko datuak.

— 2020ko Txostena eta Txostena-bideoa argitaratu ditugu. Argitalpen hori funtsezkoa da, gardentasuna errazten duelako eta kontuak emateko bitartekoa delako ez ezik (eta hala dago jasota gure jarraibide-kodean), baita gure jardunaren berri pertsona orori emateko bidea zaigulako ere.



— Sareen Sareak hirugarren euskal sektore soziala bultzatzeko EITBrekin daukan akordioaren esparruan, eta gu sare horretan parte hartzei esker, uztailaren 13tik 19ra bitartean igorri da EITB taldearen komunikabide guztietan. Irargarki horren helburua solidaritatea herritarrengana gerturatzea, eta garapenerako lankidetzarako lanaren eta GGKE-en balioa azpimarratzea izan da.

**BIDEOA** Sareen Sareako Youtubeko kanalean ikus dezakezu.

Gure **WEBGUNEAN** aurkituko duzu euskal lankidetzari buruzko informazioa: jarduerak, GGKEak, lanpostuak, boluntario izateko eskaintzak, diru-laguntzen deialdi publikoak eta pribatuak, artikuluak eta loturak, jardunaldiak, kanpainak, argitalpenak, iritziak... Bertan, alta ere eman dezakezu asteroko **MUNDUZ MUNDU** buletinean.

# Nortzuk gara

(2021aren amaieran)

Gure ekimenaren garapena aurrera ateratzeko ezinbestekoa den laguntzaren bultzatzaileak eskertzea gustatuko litzaziguke: lankideak eta boluntarioak, GGKEak, giza mugimenduak, komunikabideak, erakunde publiko zein pribatuak.

**GGKE bazkideak: 81**

Gipuzkoa: 50



Araba: 30

Bizkaia: 58



## Gobernu Batzordea

- Lehendakaritza:** Sofía Marroquín, Oxfam Intermón.
- Lehendakariordetza:** Olatz Ecenarro, Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu.
- Idazkaritza:** Mary Tere Guzmán, ALBOAN.
- Diruzaintza:** Jaime Bernar, Zabalketa.
- Arabako ordezkaria:** Gotzone Artiñano, Mundubat.
- Bizkaiko ordezkaria:** Ricardo Fernández, Medicusmundi Bizkaia.
- Gipuzkoako ordezkaria:** Laura Laborra, Medicusmundi Gipuzkoa.

## Lan-taldeak

### Euskadi

#### Generoa

Amaia Iguaran, Ayuda Mas. Silvia Felipe, Mundubat. María Viadero, Mugarik Gabe. Mila Domínguez, ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación. Sonia González, Bakea eta Elkartasuna Euskadi. Nerea Uriarte, UNRWA Euskadi. Cristina Alba, KCD ONGD-Kultura, Communication y Desarrollo. Nora Silva, SETEM Hego Haizea. María Bravo, Lumaltik. Luciana Alfaro, Bakerako Lankidetzaz Batzarrea. Olga García, Interred Euskal Herria. Mónica Oyarzábal, Proclade Yanapay. Greta Frankenfeld, Calala Fondo de Mujeres. Gurutze Aizpurua, Mundu Bakean.

#### Genero-diagnostikoko talde eragilea

Cristina Alba, KCD ONGD-Kultura, Communication y Desarrollo. Amaia Iguaran, Ayuda Mas. Natalia Navarro, Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen kanpoko aditua. Irene Molero eta Silvia de Gregorio, Euskadiko GGKE-en Koordinakunde talde teknikoa.

#### Genero-diagnostikoko jarraipen-batzordea

Sofía Marroquín, Oxfam Intermón. Laura Laborra, Medicusmundi Gipuzkoa. Gotzone Artiñano, Mundubat. Olga García, Interred Euskal Herria. Esther Calvo, Proclade Yanapay. Pepe Ruiz, Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza. Silvia de Gregorio eta Jon González de Reparaz, Euskadiko GGKE-en Koordinakunde talde teknikoa.

#### Eragin politikoa

Sofía Marroquín, Oxfam Intermón. Esther Calvo, Proclade Yanapay. Regina Zalbidea, FISC cooperación y desarrollo. Jesús Ochoa, Mugarik Gabeko Ekonomialariak. Iñaki Orube, Mugen Gaietik. Amaia Iguaran, Ayuda Mas. Eneko Gerrikabeitia, Mundubat. Begoña de Juan, Mundu Bakean. Gonzalo Fernández, Bakea eta Duintasuna. Mónica González, Bakerako Lankidetzaz Batzarrea. Rafa Ferrer, Zabalketa. Ricardo Fernández, Medicusmundi Bizkaia. Josu Urrutia, Mundukide. Olatz Ecenarro, Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu. Iruñe Martínez, OSCARTE. Arantza Acha, Unesco Etxea. Mila Domínguez, ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación. Jesús González, Mugarik Gabe. Iñigo Odriozola, TAU Fundazioa. Iñigo Eguren, Calcuta Ondoan. Olga García, Interred Euskal Herria. Iratxe Arteagoitia, SETEM Hego Haizea.

#### Garapen Iraunkorrerako Helburuak

Arantza Acha eta Nekane Viota, Unesco Etxea. Patricia Ponce, Haurralde Fundazioa. Amaia Iguaran, Ayuda Mas. Patricia Solaun, Mugarik Gabeko Ekonomialariak. Elena Fernández, Elizbarrutietako Euskal Misioak. Iruñe Martínez, OSCARTE.

#### Erdialdeko Amerika

Ricardo Fernández, Medicusmundi Bizkaia. Benja Ramos, Bakerako Lankidetzaz Batzarrea. Ainitze Zabala, Mugarik Gabe. Antonio Montoro, Mundubat. Begoña Borje, Alboan. Greta Frankenfeld eta Margarita Morales, Calala Fondo de Mujeres. Esther Calvo, Proclade Yanapay. Eneko Calle, Bakea eta Duintasuna. Gloria Guzmán, Hegoa. Eva Pérez-Pons, Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza. Laura Laborra, Medicusmundi Gipuzkoa. Iñaki Orube eta Izaskun Azurmendi, Mugen Gaietik. Iruñe Martínez, OSCARTE. Laura Vega, Bakea eta Elkartasuna Euskadi. Iratxe Arteagoitia, SETEM Hego Haizea. Iñigo Odriozola, TAU Fundazioa. Isabel Medina, MSH Mundu Solidarioa Helburu. Gurutze Aizpurua, Mundu Bakean.





## Gizarte-eraldaketarako hezkuntza

Pepe Ruiz, **Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza**. Bea Pérez, **Munduko Medikuak**. Ionan Areses, **KCD ONGD-Kultura, Communication y Desarrollo**. Joana López de Gereñu, **Medicusmundi Bizkaia**. Patricia Solaun, **Mugarik Gabeko Ekonomialariak**. Mónica Oyarzábal, **Proclade Yanapay**. Oscar Pérez, **Gazteak eta Garapena**. Pablo Vidal, **Farmacéuticos Mundi-Farmamundi**. Olga García, **Intered Euskal Herria**. Iratxe Ugalde eta Jaione de la Puerta, **Bakerako Lankidetzaren Batzarrea**. Bea Plaza, **Bakea eta Elkartasuna Euskadi**. Irene Ortiz de Urbina, **Solidaridad Internacional-Nazioarteko Elkartasuna**. Pilar Oronoz, **Zabalketa**. Bárbara Ruiz, **UNRWA Euskadi**. M.<sup>a</sup> Asun Domínguez, **ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación**. Chiara Calderoni, **Save the Children**.

## Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen sartzeko eskaera berrien jarraipen-batzordea

Olatz Ocenarro, **Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu**, **Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen Gobernu Batzordea** ordezkatuz. Yolanda Jubeto, **UPV/EHUko irakaslea**, kanpo eragile bat ordezkatuz. Silvia de Gregorio, **Euskadiko GGKE-en Koordinakunde**ko talde teknikoa.

## Lankidetzari balioa ematea

Mila Domínguez, **ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación**. Jesús González, **Mugarik Gabe**. Mary Tere Guzman, **Alboan**. Pilar Oronoz, **Zabalketa**. Patricia Solaun, **Mugarik Gabeko Ekonomialariak**.

## Bizkaia

### Eragin politikoa

Sofía Marroquín, **Oxfam Intermón**. Esther Calvo, **Proclade Yanapay**. Regina Zalbidea, **FISC cooperación y desarrollo**. Amaia Ruiz, **Bilboko Elizbarrutietako Cáritas**. Amaia

Iguaran, **Ayuda Mas**. Begoña de Juan, **Mundu Bakean**. Benja Ramos, **Bakerako Lankidetzaren Batzarrea**. Rafa Ferrer, **Zabalketa**. Ricardo Fernández, **Medicusmundi Bizkaia**. Olatz Ecenarro, **Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu**. Sonia González, **Bakea eta Elkartasuna Euskadi**. Irune Martínez, **OSCARTE**. Eneko Gerrikabeitia, **Mundubat**. Jesús González, **Mugarik Gabe**. Mila Domínguez, **ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación**.

## Gipuzkoa

### Eragin politikoa

Jesús Ochoa, **Mugarik Gabeko Ekonomialariak**. Iñaki Orube, **Mugen Gaietik**. Iñigo Odriozola, **TAU Fundazioa**. Iñigo Eguren, **Calcuta Ondoan**. Xabier Martínez eta Lorea Undagoitia, **Mugarik Gabe**. Mónica González, **Bakerako Lankidetzaren Batzarrea**. Mikel Arévalo, **Bakea eta Elkartasuna Euskadi**. Fernando Vaquerizo, **Mundubat**.

## Unibertsitate Kritiko Sarea

Bazkide diren GGKE hauek sare honetan hartzen dute parte:

Pepe Ruiz, **Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza**. Maialen Aginagalde, **Mugarik Gabeko Ekonomialariak**. Gema Hierro, **Medicusmundi Gipuzkoa**. Patricia Ortiz de Zárate, **Mugen Gaietik**. Alberto Gastón, **Emaús Gizarte Fundazioa**. Yolanda García, **Enraiza Derechos**.

## Donostiako Zero Pobrezia Plataforma

Bazkide diren GGKE hauek sare honetan hartzen dute parte:

Jesús Ochoa, **Mugarik Gabeko Ekonomialariak**. Gema Hierro, **Medicusmundi Gipuzkoa**. Patricia Ortiz de Zárate, **Mugen Gaietik**. Maider Arnaiz, **SETEM Hego Haizea**. Ana Mocoora, **Elan Euskadi**. Iñaki Revilla,

**Proclade Yanapay**. Idoia Azpilicueta eta Laida Pino, **PROYDE-PROEGA**. Iñigo Odriozola, **TAU Fundazioa**. Ane García, **Behar Bidasoa**. Yolanda García, **Enraiza Derechos**. Miriam Amubieta, **UNRWA Euskadi**. Sheila Padrones, **Emaús Fundación Social**.

## Araba

### Gasteiz konexioan

Ainhoa Bilbao, **SETEM Hego Haizea**. Ainara Chana, **SOLIVE Solidaridad Vedrúna**. Deyanira Rodríguez, **Solidaridad Internacional-Nazioarteko Elkartasuna**. Itsaso Sánchez, **Medicusmundi Álava/Araba**. Amaya Algarra, **ALBOAN**. Alberto Díaz, **ICLI Ingeniería para la Cooperación-Lankidetzarako Ingeniaritza**. Elena Fernández, **Elizbarrutietako Euskal Misiok**. Luciana Alfaro, **Bakerako Lankidetzaren Batzarrea**. Iñaki San Miguel, **Acción Contra el Hambre-Gosearen Aurkako Ekintza**.

## Erakundeetan partaidetza eta beste ordezkaritza-esparru batzuk

### Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorea

Sofía Marroquín, **Oxfam Intermón**. Josu Urrutia, **Mundukide**.

### Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua

Olga García, **Intered Euskal Herria**. María del Mar Magallón, **ALBOAN**. Sofía Marroquín, **Oxfam Intermón**. María Viadero, **Mugarik Gabe**. Josu Urrutia, **Mundukide**. Eneko Gerrikabeitia, **Mundubat**. Mila Domínguez, **ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación**. Iñaki Orube, **Mugen Gaietik**. Santiago Martínez, **Bakea eta Elkartasuna Euskadi**. Iñigo Eguren, **Calcuta Ondoan**.

### **Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorra**

Iñaki Orube, Mugen Gaietik. Mila Domínguez, ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación.

### **Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren Politiken Koherentziarako Batzordea**

Eneko Gerrikabeitia, Mundubat. Eneko Calle, Bakea eta Duintasuna. Jesús Ochoa, Mugarik Gabeko Ekonomialariak. Iñaki Orube, Mugen Gaietik. Natalia Rodríguez, Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko talde teknikoa.

### **Kanpo Harremanetarako Aholku-Batzordea**

Sofía Marroquín, Oxfam Intermón.

### **Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Defendatzaileak Aldi Baterako Babesteko Euskal Programaren hautaketa-batzordea**

Irene Molero, Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko talde teknikoa.



### **Euskadiko Gazteak Lankidetzan**

Amaia Iguaran, Ayuda Mas.

### **Eusko Jaurlaritzako Ignacio Ellacuría sariaren epaimahaia**

Sofía Marroquín, Oxfam Intermón.

### **Elkarrizketa Zibilerako Mahaia**

Olatz Ecenarro, Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu. Natalia Rodríguez, Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko talde teknikoa.

### **Lankidetzarako Bilboko Udal Kontseilua**

Olatz Ecenarro, Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu. Esther Calvo, Proclade Yanapay. Benja Ramos, Bakerako Lankidetzatza Batzarrea. Sonia González, Bakea eta Elkartasuna Euskadi.

### **Vitoria-Gasteizko Garapenerako Lankidetzatza Elkargunea**

Aurora Hermosilla eta Natalia Rodríguez, Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko talde teknikoa.

### **Eskutik Mundura**

Aurora Hermosilla eta Natalia Rodríguez, Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko talde teknikoa.

### **Donostiako Udaleko Garapenerako Lankidetzatza eta Hezkuntzako Aholku Kontseilua**

Lorea Undagoitia, Mugarik Gabe.

### **Gipuzkoako Kooperazio Mahaia**

Irene Molero, Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko talde teknikoa.

### **Espainiako Garapenerako erakundeen Koordinakundea**

Gobernu Batzordeko II. lehendakariordetza: Irene Molero, Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko talde teknikoa.

### **GGKE-en Koordinakunde Autonomikoen Sarea**

Irene Molero, Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko talde teknikoa.

Espainiako Garapenerako erakundeen Koordinakundearen eta koordinakunde autonomikoen Genero-taldearen Sarea: Silvia de Gregorio, Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko talde teknikoa.

Komunikazio-taldea: Jon González de Reparaz, Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko talde teknikoa.

### **Sareen Sarea**

Batzordekide Gobernu Batzordean: Olatz Ecenarro, Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu eta Natalia Rodríguez, Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko talde teknikoa.

## **Talde teknikoa**

Irene Molero, Koordinazio Orokorra. Aurora Hermosilla, Administrazioa. Erika Erkizia, Idazkaritza teknikoa eta logistika. Natalia Rodríguez, Eragin politikoa. Silvia de Gregorio, Generoa eta Sektorearen indartzea. Sara Goienetxe, Mobilizazioa eta gizarte-eraldaketarako hezkuntza. Jon González de Reparaz, Komunikazioa.

## GGKEak

Acción Contra el Hambre-Gosearen Aurkako Ekintza  
ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación  
ADRA  
Adsis Fundazioa  
ALBOAN  
Asociación Elkarcredit de Solidaridad  
Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu  
Ayuda Mas  
Bakea eta Duintasuna  
Bakea eta Elkartasuna Euskadi  
Bakerako Lankidetzaz Batzarrea  
Baltistan Fundazioa  
Behar Bidasoa  
Bilboko Elizbarrutietako Cáritas  
Bizilur  
Bultzapen  
Calala Fondo de Mujeres  
Calcuta Ondoan  
Cáritas Gipuzkoa  
Edex Centro de Recursos Comunitarios  
Egoaizia  
Elan Euskadi  
Elizbarrutietako Euskal Misioak  
Emaús Gizarte Fundazioa  
Enraíza Derechos  
Euskadi-Cuba  
Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza  
Farmacéuticos Mundi-Farmamundi  
FISC cooperación y desarrollo  
FISC-Nazioarteko Solidarizarako Fundazioa  
Mariaren Lagundia

Garabide  
Garapena  
Gazteak eta Garapena  
Gipuzkoako Oscar Romero Solidaritza  
Haurralde Fundazioa  
Hegoa  
Hirugarren Adina Hirugarren Mundurako  
Ingeniería para la Cooperación-Lankidetzarako  
Ingeniaritza ICLI  
Intered Euskal Herria  
Iquitanz  
ISCOD Euskadi  
Itaka Escolapios Fundazioa  
Kainabera  
KCD ONGD-Kultura, Communication y Desarrollo  
Lumaltik  
Manos Unidas  
Manuel Iradier Elkarte Afrikanista  
Medicusmundi Álava/Araba  
Medicusmundi Bizkaia  
Medicusmundi Gipuzkoa  
MSH Mundu Solidarioa Helburu  
Mugarik Gabe  
Mugarik Gabeko Arkitektura  
Mugarik Gabeko Ekonomialariak  
Mugen Gaietik  
Mundu Bakean  
Mundubat  
Mundukide  
Munduko Landagunea  
Munduko Medikuek

OSALDE Osasun Eskubidearen Aldeko Elkarte  
OSCARTE  
Oxfam Intermón  
Pausumedia  
Proclade Yanapay  
PROYDE-PROEGA  
ROKPA Euskadi  
Save the Children  
SEADen Lagunen Elkarte Araba  
SEADen Lagunen Elkarte Bizkaia  
SEADen Lagunen Elkarte Gipuzkoa  
SED Solidaridad, Educación y Desarrollo  
SERSO San Viator de Euskal Herria  
SETEM Hego Haizea  
SODEPAZ Euskadi Solidaridad para el Desarrollo  
y la Paz  
Solidaridad Internacional-Nazioarteko Elkartasuna  
SOLIVE Solidaridad Vedruna  
TAU Fundazioa  
UNESCO Etxea  
UNRWA Euskadi  
Zabalketa



# Kontu argiak

Sarrerak 2021	Burutua (€)	%
Kuotak	33.091	8,19
Eusko Jaurjaritza	200.000	49,51
Arabako Foru Aldundia	20.000	4,95
Bizkaiko Foru Aldundia	34.000	8,42
Gipuzkoako Foru Aldundia	40.000	9,90
Bilboko Udala	18.000	4,45
Donostiako Udala	34.150	8,45
Gasteizko Udala	24.000	5,94
Jarduerengatik sarrerak	540	0,14
Ezohiko sarrerak	190	0,05
<b>Gutzizkoa</b>	<b>403.971</b>	<b>100</b>

Gastuak 2021	Burutua (€)	%
Bulegoko materiala	5.015	1,24
Soldatak	307.895	75,90
Bidaiak	6.623	1,63
Jardueren gauzatzea	70.358	17,35
Funtzionamendua	15.727	3,88
<b>Gutzizkoa</b>	<b>405.618</b>	<b>100</b>

**Emitza (€)**

**-1.647**

2021eko kontuak BNFIX KLZ Auditores kanpoko enpresak ikuskatu ditu eta egiaztatu du leialki islatzen dutela Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko ondarea eta bere finantza egoera. Informazio gehiago [WEBEAN](#).



# Txostena 2021

## Araba

Simone de Beauvoir Elkarteen Etxea  
San Ignacio de Loyola 8, 3. 1. bulegoa  
01001 **Gasteiz**  
☎ 945 280 745  
araba@ongdeuskadi.org

## Bizkaia

Ronda z/g (5. zk-ren aurrean), 3. C bulegoa  
48005 **Bilbo**  
☎ 944 150 300  
bizkaia@ongdeuskadi.org

## Gipuzkoa

Iparragirre 8, behea  
20001 **Donostia**  
☎ 943 463 526  
gipuzkoa@ongdeuskadi.org



EUSKADIKO GGKEen  
KOORDINAKUNDEA  
COORDINADORA  
de ONGD EUSKADI

[www.ongdeuskadi.org](http://www.ongdeuskadi.org)

Diseinu eta maketazioa: Marra S.L.

Itzulpena: Bakun itzulpen eta argitalpen zerbitzuak

## Laguntzaileak



araba **álava**  
foru aldundia diputación foral

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral



**B**  
**Bilbao**



## Euskararekin bat

